

danbolin

2026 ekaina

28^oak.



auzoetako
festa batzordeak
herritik eta herriarentzat

Irao berri
pottokak

675 965 116 iraopottoka@gmail.com

Botika - Laborategia
ZURUTUZA

Gesalaga kalea 8, Zestoa tel./fax 943 147 006
WhatsApp: 661590009 farmazu@farmanorte.org

Gestoria Zubia

M^a Jesus Zubia Olaizola
Portale kalea 7, beheha - 20740 ZESTOA
Tel./FAX: 943 897 070

Portale Kalea 7,
20740 Zestoa
tel. 943 147 088



kutxabank

Ekain Berri
kafetegia

Ordutegia
Aste barruan 06:30/13:30
16:30/20:30
Asteburutan 06:30/14:30
Arratsaldez itxita
By NADIA
Tlf: 943 536 314
ZESTOA



943 147 657

CARAVAN PARK
GARRAIO SISTEMAK
ERREMOLKEEN SALMENTA
ERREMOLKEETARAKO OSAGARRIAK
KARABANA, AUTOKARABANA eta
FURGONETETARAKO OSAGARRIAK
KONPONKETA eta
MANTENTZE LANAK
www.caravan-park.net
ZESTOA TEL. 14 76 79
tel. 943 147 679
www.caravan-park.net
info@caravan-park.net



Zestoa
AUTOESKOLA

Gesalaga 1 Tel. 943 148 524
20740 Zestoa Gipuzkoa zestoa_autoeskola@hotmail.com

Tel.: 943 14 73 44

APRILA											
		1	2	3	4	5					
6	7	8	9	10	11	12					
13	14	15	16	17	18	19					
20	21	22	23	24	25	26					
27	28	29	30								

MAIATZA				EKAINA						
				1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	15	16	17	18	19	20	21
19	20	21	22	22	23	24	25	26	27	28
29	30	31		29	30					

■ Egun osoan irekita ■ Muz bapeltuta 22:00etan ■ Irekita 18:00etatik aurrera ■ Itxita

USTAPIDE
TABERNA
Erdikalea 5
Telf: 943 14 73 22
20740 Zestoa (Gipuzkoa)

AVA ASESORIA ARIN

ABOKATUA GESTORIA
KONTABILITATEAK ZERGAK
INMOBILIARIA GESTIOA LABORALA
KOMUNITATE ADMINISTRAZIOA ASEGUURUAK

Gesalaga kalea, 22 beheha 20740 ZESTOA
Tel./Fax.: 943 897 099 asesoriarin@asesoriarin.com

IRAETA JATETXEA
Olaizola eta Uria kalea - Iraeta
943 147 067

Gesalaga kalea 20
Zestoa 20740



mizuclicadental@gmail.com
ZURINE ECHEBERRIA RENOBABLES COLEG. 797
IDOIA ECHEBERRIA RENOBABLES COLEG. 868
Telf.: 943 14 78 28

eskua
Therapy Group
Fisioterapia
Osteopatia
- 943 29 08 99 -
Toribio Alzaga 20 - 22 20740 Zestoa

GISASOLA
EGOITZA - RESIDENCIA
Toribio Alzaga 6 - Zestoa
943 897 077 / 688 842 848 residenciagisasola.com

Oiranzub
taberna

kutixi eta
pentzuak
laiak
ZESTOA
www.laiakdenda.com
tfnua: 943148134
Lurraren onena
Zestoaren bihotzean.

harresi
Tif 943 323 894
Gurutzeaga kalea 11-13

Eizagirre
Okindegia

Tel: 943 090341

foti
taberna
Zestoa
Kaleokerra, 3
Tel. 943 147 269

Itzulpen eta argitalpen zerbitzuak, s.l
Itzulpenak baino askoz gehiago!
Bakun
Narkis Balentziaga, 2 T+34 943 148 306 bakun@bakun.eus
20749 Arroa (Gipuzkoa) F+34 943 897 380 www.bakun.eus

UROLA
ITURGINTZA
665 49 07 73

KOIOOTE
foru plaza, 4
tel. 943 147 095

Aranburu
Landetxea eta jatetxea
943 148 005

Festa usaina dakarren alea!

Mari Karmen Zurutuza Zestoako lehenengo emakume farmazialaria 53 urtez aritu da zestoarrekin lanean, herriguneko nahiz auzoetako bizilagunekin. Ondotxo ezagutzen ditu zestoarrak, auzotarrak eta beraien berezitasunak. Berak dioen bezala, sarri hitz egitea besterik behar ez zuten herritar batzuk gerturatzen ziren farmaziara, egunero pastilla baten bila, baina horixe zen behar zutena, hitz egitea. Eta Mari Karmen hortxe zegoen, beti denei laguntzeko prest.

Neska oso gaztea zela hasi zen lanean herrian, Laranjadi plazako botika zaharrean. Negar pila bat egin zuela onartu du bertako pertsiana jaitsi zuen egunean. Aldaketa hobera egin behar zuen, farmazia berriera, baina oroitzapen oso onak zituen botika zaharrean, bere hastapenetako urte guzti haietakoak. Zestoa atzerritarrez betetzen zen garaia ere aipatzen ditu, baita bertako urak analizatzen egiten zuen lan pila ere. Guardiak zituen egunetan, Romanaren pentsioan geratzen zen lo egiten. Izatez azpeitiarra izan arren, garai hartan ez zen mugikorrik eta urgentiaren bat baldin bazegoen gertu egotea komeni izaten zitzaion. Romanarenean, Zamoratik etorritako irakasle gazteekin gauetan izaten zituen karta joko eta solasaldiak ere oroitzen ditu. Garai oso polita izan zela dio.

Azpeitiarra izan arren, Zestoa bere bihotzean daraman herria dela azpimarratu du.

Ale honetan aurkituko dugun beste artikuluan ere Zestoako berezitasunak agerian geratzen dira. Herriguneez gain, nortasun handiko auzoak ditu Zestoak, hala nola, Arroabea, Arroagoia, Aizarna, Iraeta, Narrondo, Lasao eta Endoia. Bakoitzak bere berezitasunak dituen arren, guztiek elkarrekin duten antzekotasuna da festa antolatze modua. Ekitaldiak ez dira beraien kabuz antolatzen, auzotarren borondatezko lana dago egitarau oparo horien atzean. Zazpi festa batzordeekin aritu da hizketan Ohiana Calparsoro. Guztiek bat egiten dute parte-hartzerik gabe festarik ez dagoela esateko unean, eta argi dute herritarren parte hartzerik gabe ezin dela festarik antolatu. Udalaren laguntza ekonomikoa beharrezkoa dutela azpimarratu dute guztiek.

Boluntarioen lanik gabe, auzo eta herriguneko hainbat ekimen ez ziren aurrera aterako, herrian herrarentzat jardutea zer nolako garrantzitsua den erakusten du zazpi festa batzorde hauen jardunak. Gure gazteak ere parte-hartzeko kultura hori ezagutzen hasiak dira, iaz udalak abiatu zuen nerabeen parte-hartze prozesuari esker. Eta arrakasta izan zuela ere esatera ausartzen naiz, izan ere beraien proposamenetatik sortu ziren hainbat ekimen (futbito txapelketa eta Agirokekin mendi irteera kasu) bigarren aldiz antolatu dituzte. Bejondeiela!

Festa usaia dakarren Danbolin lasai irakurtzeko txanda heldu zaizue, gozatu eta uda mundiala pasa!

naiara expósito alberdi



DANBOLINEK EZ DU BERE GAIN HARTZEN ALDIZKARIAN ADIERAZITAKO ESANEN ETA IRITZIEN ERANTZUKIZUNA

Argitarabaeilea: DANBOLIN ZULO ELKARTEA. KULTUR EGXEA. AXUN ARRAZOLA PLAZA 1, 20740 ZESTOIA (GIPUZKOA)

722 609 265 INFO@DANBOLIN.EUS

Danbolin: NAIARA EXPOSITO, AMAIUR ARISTI, URKO CANSECO, SARA MACSUCANI, PERU GARCIA, JONE BERGARA, ICSASO WALIÑO, OHIANA CALPARSORO ETA OIHANE GOIKOEEXEA
Kolaborabaeile/argitarabaeile baldea: NAGORE TELLERIA, JON ARGANO, FERNANDO ARZALLUS, ONINTZA IRUREGA, MIREIA ORBEGOZO, EIDER ARRIZABALAGA, MAIDER ARREGI, NEREA ODRIOZOLA, ICSASO ZUBIRIA ETA MIKEL LIZARRALDE
Disseinua eba maketabaeia:

ENEKO ARISTI

Inprimabegia: GERTU (OÑATI).

Lege gordailua: SS-1108/2000

ISSN: 1576-9429



SALTAKAKO LEHEN URRATSAK

Onartu beharra daukat aldizkaria irakurtzean irribarrea irten zaidala. Neuk ere ederki oroitzen dut egun hura, Arantxa! 2018ko krosean izan zen zehazki, argazkiak eta guzti ditut egun hartakoak. Kuadrillan irten ginen kroseko bira egiteko asmoz eta aldapak zetozelako, arnasa hartzeko, erritmoa jaitsi genuen, ziztu bizian eta animoak ematen aldamentetik pasa zinen arte. "Nola liteke hamasei urterekin gu baino 50 urte gehiago dituen batek aurreratu izana?" esan nion neure buruari. Bere garaian mundu mailan lehiatu zinela pentsatzeak lotsa gutxitzen dit, behintzat!

Zure galderari eutsiz, nire ustez bai, Zestoan etorkizun handia izan dezaketen gazte asko daude; eta ez atletismoan bakarrik, baita beste hainbat kirolatan ere: txirrindularitzan, futboleant, pilotan edo dantzan, esate baterako.

Zestoa herri txikia den arren, aukera asko daude, nahiz eta ume askok futbola lehenetsi. Gainontzeko elkarteek presentzia txikiagoa duten kirolak bul-tzatzen jarraitu behar dugula deritzot, Zestoako umeek hainbat kirol probatu, eta beren trebetasunak aurki ditzaten. Behar bada hurrengo nazioarteko txapelketetan lehiatuko den kirolariren bat izango dugu Zestoan, batek daki!

Atletismoan zentratuz, badira bizpahiru urte Lander Zabala eta biok gazteto batzuekin lasterka hasi ginela. Astelehen eta asteazkenetan elkartzen ginen eta asteburu batzuetan txapelketetara ere joaten ginen. Aurten ezin izan dugu taldea atera, bion lan egoera dela eta. Hala ere, udan zerbait egingo dugu, harria guztiz eten ez dadin. Badira taldetxo honetan lasterketetan ondo ibiltzen diren batzuk; jarraitutasun falta dela eta, ordea, nahiko etenda dituzte entrena-

mentuak. Ea hurrengo urteetan animatu eta gustatzen zaien kirol hau, etorkizun oparoa izan dezakete eta! Nolanahi ere, etorkizuna ezezaguna da eta batek daki zer gerta daitekeen. Arantxa, zu bezala, herri honetan gazteontzat ezezagunak diren kirolari oso onak izan dira, eta ez atletismoan bakarrik. Horien artean Jose Mari Uzkudun: 1.500 metroko lasterketan Euskadiko bigarren postua lortu eta harategira lanera sartu omen zen. Gazteontzako ezezaguna den zure esperientzia kontatuko al diguzu?

azier zulaika

entzidoa

pintada.

OSPATZEKO eta memoria egiteko unea. Zazpi urteko bide luze eta gogor baten ondoren, pozez jaso dugu sei herrikideen absoluzioa. Arnasa hartu dugu. Eta urte hauetan guztietan elkartasuna adierazi duzuen guztiei eskerrak emanez zabaldu nahi dugu poz hori.

Epaia pozik jaso badugu ere, urte hauetako memoria egiteko unea da. Absoluzioak ezin ditu ezabatu zazpi urte hauetan herriko sei kidek bizi izan duten sufrimendua, nekea eta ziurgabetasuna. Ezin dugu ahaztu elkartasun feminista bera jarri dutela auzitan. Emakume bati babesa ematea, haren alboan egotea, sare komunitarioak aktibatzea eta indarkeria matxistaren aurrean erantzun kolektiboak antolatzea jarri dituzte jomugan.

Urte hauetan guztietan zaintzak eutsi dio komunitate honi. Zaintzak eutsi die auzipetuei. Zaintzak eutsi die familiei, lagunei eta bidelagun izan garen guztioi. Eta zaintzak ekarri gaitu honaino. Horregatik, aurrerantzean ere, sendo eutsiko diogu elkartasun feministaren konpromisoari. Eta behar den guztietan errepikatuko dugu: elkartasuna ez da delitua!

Zestoako mugimendu feminista

mendi iruditeria

Mendien presentzia handiarekin jaio ginenontzat, mendirik gabe egoteak desorientatu egiten gaitu, iparra galitzen dugu; badirudi aterpe natural bat falta zaigula. Desio ditugu zeruertz egonkor eta lineala hausten duten harriztar horiek.

Txile da nire jaioterria: lur gorabeheratsu eta bizia, sumendi aktiboz eta lurrikaraz betea. Eta, orain, Zestoa dut bizileku, barrualdekoa dirudien ia kostaldeko herria, baina, Andeetako



Txile ez bezala, mendi otzan eta atseginagoez inguratua. Mendiak ikusteko modua aldakorra izan da. Yi-Fu Tuan txinatarrak *Geografia erromantikoa* liburuan kontatzen digunez, kristautasunaren aurretik, mendiak gorentasunaren irudikapena ziren, eta jainkoen bizilekutzat jotzen ziren zerutik gertu zeudelako. Sakratuak ziren: Meru mendia indiarrentzat, Aconcagua inkentzat, eta, urrunago joan gabe, Anboto euskaldunentzat.

Denborak aurrera egin ahala, mendien ikuskera biblikoa agertu zen: jatorrizko bekatuagatik, lurra hutsunez, irregularitasunez, garatxo bete zen; lurraren aurpegi leuna hondatu egin zen. Mendiak zigor jainkotiarra ziren. 1700. urtera arte, ezezagunak eta bidelapurrez beteak. Euskal Herrian, boterean zeudenentzat gaizki ikusiak ziren, sorginen eta fedearen etsaien babesleku izateagatik. Azkenik, mendiak ikusteko bi modu antagoniko nagusitu ziren, gaur egun ere irauten dutenak: ikuskera "erromantikoa", mendizaletasuna XVIII. mendean Europan diziplina gisa sortu zenekoa, eta mendien ikuspegi "utilitarista"; mendiak ustiatzeko dira, produkzio iturriak (basoak, parke eolikoak, harrobiak). Bi jarrera horiek bateraezinak dira, talka egiten dute, hedatzen ari den kapitalismo natura suntsitzailearen inertziagatik.

Mendiak duela milioika urte sortu ziren, beren erritmo eta hizkuntza propioarekin, baina guk esanahiz bete ditugu. Esanahi aldakorrak, arlo sozial eta indibidual guztiak bezala: zer esan nahi dute zuretzat mendiek?, nondik erlazionatzen zara mendiekin, ikuspegi indibidual edo kolektibotik?, zer oroitzapen dituzu mendiari lotuta?, zer da haietan politikoa?, eta zer defendatu beharko genuke mendietan?

LODI

Ofizialki lodia naiz orain. Ia bizitza osoa daramat gure osasun-sistemaren arabera pisu gehiegizkoarekin, eta orain obesitatearen langa gainditu dut. Azken azterketan, medikuak neurketen emaitzak eskuan zituela erreposoa egin eta dena ondo zegoela egiaztatu zuen. Bihotza ondo, inongo

minik ez, ondo jaten dut, lo ere ondo, kirola erregulariki, ez dut kezkatzeko arrazoirik.

Amaitzeko, pisua jaitzen saiatzeko esan zidan, obesitate apur bat daukadala-eta. Ez zuen enfasi handiegia-



rekin esan. Ez zirudien kezkatua, agian protokoloak hala agintzen ziolako esango zuen. Baina esan egin zuen. Barrutik pentsatu nuen "jai duzu, txikito", baina isilik gelditu nintzen.

Eskerrak "soberako" kilo horiekin bakeak eginak nituen, eskerrak argi dudan ez dudala argaltzeagatik argaltzeko batere saiakerarik egingo. Baina amorragarria da behin eta berriro horrelako mezuak jasotzea. Gizarteak alde guztietatik egiten digun presioarekin nahikoa ez, eta mediku-autoriteteak ere erretolika bera. Argaldu. Argaldu. Argaldu.

Kontsultatik atera nintzen, medikuari esan ez nizkionak buruan: Dena ondo baldin badago, zer demontretan lagunduko dit kilo batzuk jaisteak? Zergatik egiten diezue oraindik kasu baliabide estatistiko gisa sortutako formula (gorputz-masaren indizea) zaharkitu eta eurozentristeri? Zergatik zara industria lodifoboaren konplize? Zer onura ekarriko dit nire gorputza pisutsuegia edo desegokia delako usteak, horrela ondo baldin badago? Zergatik markatzen du indize bakar batek edozein pertsonaren pisu "ideala", gorputzen forma eta proportzio anitzak kontuan hartu gabe? Pentsatu nahi nuen gorputzen aniztasuna normalizatzeko bidean ginela, baina berriro atzerapausoa egin dugula dirudi. Sare sozialetan normalizatu egin da argaltasuna bilatzea eta gorai-patzea, fitnessaren kulturak gehiegitan ezkututzen du betiko edertasun ereduaren bilaketa, norbere gorputzaren kontrako gerran jarraitzen du askok, arropa-dendetan 42 neurritik gorakook nekez topatzen dugu galtzarik, eta abar.

Aurtengo udarako, mandamentu zahar baten moldaketa proposatzen dizuet: "Zure gorputza onartuko duzu, lagunena onartzen dituzun bezala".



Mari Karmen Zurutuza

MARI KARMEN ZURUTUZAK, 1973TIK ZESTOAKO BOTIKAN LAN EGIN ETA GERO, ERRETIROA HARTU BERRIA DU. BOKAZIO HANDIKO FARMAZIALARIA, PROFESIONAL ONA ETA JENDEAREKIN ESKUZABALA DELA AITORTU DUTE BERAREKIN LAN EGINDAKO DENEK. HERRIARI ZERBITZUA EMATEA ETA HERRITARREKIKO HARTU-EMANA AZPIMARRATU DITU, BERRIZ, MARI KARMEN BERAK. EZ DIRA DOHAIN MAKALAK, EZ HORIXE, HAINBESTE TEKNOLOGIAK, HAINBESTE MAKINAK ETA AUTOMATIZAZIOK, AGIAN, GIZA-HARREMANA ARRISKUAN JARTZEN ARI DIREN GARAI HAUTAN.

Iruñean egin farmazia ikasketak eta nola hasi zen zure lan-bizitza?

Karrera bukatu eta segituan, nire aitak [Enrike Zurutuza, Azpeitiko albaitaria] esaten dit: Mari Karmen, Magallonek esan dit [Magallon Zestoako albaitaria zen] Julio Tejeirot Madrilera joatea nahi duela eta botika eskualdatu egin nahiko lukeela. Emaztea madrildarra zen, bera galiziarra. Tejeiro zortzi urtez aritu zen Zestoan. Lehenago Ignazio Arrazola ibili zen. Eta hala hartu nuen Kaleokerreko botika, eta han jardun nuen bertan 1973tik 2000. urtera arte.

Handik gutxira, funtzionario izateko oposizio-probak eta analisi klinikoen ikastaroa egin nituen Madrilen. Garai hartan herri guztietan, osasun eremuan, hiru funtzionario mota zeuden: medikua, albaitaria eta farmazeutikoa. Orain hori kenduta dago baina orduan hala zen. Ni botikan hasi nintzen garaian, medikua Don Enrike zen eta albaitaria Magallon. Lagun handiak ziren biak.

Ni, herriko medikua eta albaitaria bezala, garai hartan Gobernazio Ministerioko funtzionarioa nintzen, nire aita eta anaia bezalaxe, biak albaitariak, eta aitak esaten zigun, brometan: "Ez ahaztu gu hirurok polizia nazionalaren kidego berekoak gara!". Izan ere, Gobernazio Ministerioak kidego oso handi bat hartzen zuen bere baitan: osasungintzakoak ginen, baina ez zen orain bezalako kidego independente bat, baizik eta Gobernazioaren menpe zegoen.

Eta zein izaten zen zure lana?

Azpeitian esaten zidaten, "Zestoa... horrek zer lan emango din ba", baina nik esaten nien "txist, txist... oraintxe kontatuko dizuet zenbat depositu, eta zenbat lan ematen duen..."

Nire ardura zen Zestoa guztiko eta Aizarnazabaleko ur-hornidura osoaren analisia, ur-biltegi publikoak, pribatuak, eta hemen, batez ere, bainuetxea. Biltegi pilo bat zeuden: Aizarnan, Arroagoian, Arroabeian, Beduan, Aizarnazabalen, Ibañarrietan, Endoian... Horietara denetara ni neu joaten nintzen.

Udal langileek zuten urak kloratzeko ardura, baina batzuetan gutxi botatzen zioten, eta hurrengo berriz karroa bete-bete egin da joaten ziren, eta urak arropa garbitzeko bakarrik balio zuen, edatea ezta okurritu ere [barre egiten du]. Gauza horiek aspaldi zuzendu zituen udalak, ordea, urak kloratzeko gailu automatikoak instalatuta.

Analisi lanak egiteko tresna asko erabiltzen ziren: labea, Petri plakak, mikroskopioa eta kloro eta PH neurgailuak.

Bueno, baina nola izan zen botika zaharreko hasiera hura?

Ba, poz-pezik lehenengo momentutik. Oso herri erraza, herri irekiagoa Azpeitia baino; kanpotarrek eta mundu horrek ematen zion nortasun pixka bat diferentea, herria ohituta zegoen kanpotar jendea hartzen, edo etxeetan edo hoteletan... portugesak eta etortzen ziren.

Romana pentsioan hartzen nuen ostatu, Agustin tabernan. Maisu talde bat ere bazegoen han, Zamora-koak gehienak, eta batzuk hemengoekin ezkondu ziren gainera. Zer giro zoragarria egoten zen Romanaren etxean!

Azpeitia ez zeneukan ba urruti?

Ez baina guardiatan-eta hemen egon behar zenuen une oro. Guardiak-eta hilabete osoan izaten ziren,

eta konpontzen nintzen Mirenekin - artean Mirari ez zegoen - baina tokatzen zenean Romanen geratzen nintzen. Guardia tokatzen zenean ez zegoen etenik. Senargaiarekin joaten bazinen, mundu guztiak bazekien non zeunden. Endoiarantz paseoan banindoan, ohartarazi beharra neukan: "Hara noa paseoan"; denbora guztian aurkitzeko

moduan egon behar zen. Orduan ez zegoen mugikorrik, ez bilaketa-tresnarik, ez ezer.

Romaneneko giroa ikaragarria zen. Ni artean oso gaztea nintzen, 24-25 urte besterik ez. Gauero berdin, karta jokoan eta tertulian, eta haiek (maisumaitrek) kontatzen ziguten, esate baterako, bat Sanabrian izan zela maisu; bederatzi hilabete inkomunikatuta (ez zeukaten errepiderik, orain badaukate baina)... Denok adin bertsoak ginen.



Mari Loli, Mari Karmen eta Mirari

"NIRE ARDURA ZEN ZESTOA GUZTIKO ETA AIZARNAZABALEKO UR-HORNIDURA OSOAREN ANALISIA, UR-BILTEGI PUBLIKOAK, PRIBATUAK..."

Eta zer aldatu zen Tejeiok utzi eta farmazia zuk hartzearekin? Hainbat urtetan botikaria gizonezkoa, eta zu, frankismo garai ilunean, emakumezkoa...

Aldaketa izan zen bai. Eta beste aldaketa bat: Julio Tejeiok ez zekien euskaraz, eta ni sartu nintzenean hori ere aldatu egin zen.

Zestoa herri txikia zen, eta askoz errazagoa zen jendearen arazoak ezagutzea, haiekin harremanetan jartzea eta haiekin sentsibilizatzea. Zestoan egon naizen 53 urteetan, orain helduak diren gehienak jaiotzen ikusi ditut... Guardiak tokatzen zitzaizkidan igandetan, nire semeak Laranjadin ibiltzen ziren jolasean, musika bاندaren doinuekin dantzatzen zuten...

Nolakoa izaten zen botikako egunerokoa?

Orain egiten diren gauza berdinak egiten ziren, askoz teknologia gutxiagorekin eta gastu gutxiagorekin. Jendearen arreta, errezetak ematea (gaur egun dena elektronikoki egiten da). Gero gauza batzuk prestatu egin behar izaten dira; esate baterako, garai batean poteko tomatea egiteko hauts batzuk prestatzen ziren (hori orain debekatuta dago), edo arrantzale denak etortzen zitzaizkigun medusen kontrako botika baten bila... Mota guztietako formulak prestatu izan ditut beti. Antzinako formulatik hasi eta gaur egungo modernotaraino. Eta horretarako behar ziren tresna guztiak neuzkan laborategian.

Baina orduko lanak...! Kobratzeko kaxoi bat izaten zen, botika eskariak telefonoz egiten ziren... Biztanle kopuru berdina, lan berdina, baino askoz atzeratuago. Hori bai, orain, irabazten duzunaren zati handi bat teknologiari itzuli behar diozu, sistema mantentzeko. Ika-

ragarritzko *papeleoa* izaten da; *ladrones del tiempo* esaten diet nik, zeren une oro tramiteak eta tramiteak egiten zabilta.

Herriarentzat ia zerbitzu guztiak izango zituen farmazia bat eduki nahi izan dut beti: analisiak egin ditugu, Guztiok Bat enpresan [langileen] analitikak ere egiten genituen. Gero anbulatorioak hasi ziren analisiak egiten, eta guk orain egiten ditugu, makinatxo batekin, zerbitzua emateko, azukre, kolesterol, triglizerido eta gauza puntualak. Gaurko teknologiarekin hori egiten da behetzean zitzatadaxo emanda, baina orduan xiringatxo batekin egiten zen (anbulatorioan egiten zen bezala).

Zer diferentzia nabaritzen dituzu hasierako garai haiekin konparatuz?

Ba, alde batetik, funtzionario izateak zekarren lana bukatu egin zen urak zentralizatu egin zirelako. Bestetik, guardien ordutegia murriztu egin da, eta horrek aldaketa handia ekarri du. Geroago, zerbitzu berriak eskaintzen hasi ginen, esate baterako, metadona kontrola. Badakizu garai batean drogen menpeko asko egon zela, arazo handia izan zen, baita Zestoan ere. Gainera, Giza-kia Helbururen zentroa geneukan hurbil, Lasaon. Egoera zailak

izaten ziren batzuetan, zeren pertsona horiek, bere arazoak zituztenez, etortzen ziren oihuka botikara: "Eman-eman; baina ezin dizut eman..." eta horrela. Zerbitzu hori eman ahal izateko, urtero-urtero baimen berezia jaso behar izaten da.

Beste gauza bat, lehen egiten ez zena eta orain bai, erresidentzietan daudenentzako asteko pastilla-ontzia prestatzea da, bakoitzari berea, eta herriari ere eskaintzen zaio zerbitzu hori nahi duenarentzat. Baina, batez ere, aldaketa handiena izan da teknologia, eta ni neu eta gure farmazia teknologia aldaketa horretara egokitzea.

"Farmazia Bateko Lanak, Ordutegi Zabala eta Guardia Iraunkorrak Dituena, Farmazialariari Ez Ezik, Bere Familia Osari ere eragiten dio"



Botikako tresneria



Botika zaharra, mostradorea

Miren Kort...

Eta urte hauetako zure lankideak? Aipa itzazu batzuk.

Lankide asko izan ditut: Miren Kortadi izan zen lehena eta Araitx Odriozola azkena. Baina aipagarrienak ahizpa Mari Loli, nire seme Xabier, eta batez ere, Mirari Aizpurua izan dira. 48 urte egin zituen nirekin; hainbeste urte elkarrekin, botika bezalako gune txiki batean...!

Kaleokerreko botikan hasi zinen eta noiz arte egon zineten han?

2000. urtera arte. Geroztik, orain gauden toki horretan. Botika zaharra, oso polita, baina zeukan ikaragarritzko defektua gaurko egunerako: irisgarritasuna. Eskailera maila mordoxka zituen. Neuk jarri nuen baranda bat, baina ez zituen baldintzak betetzen. Lehengo botika zaharra eta txikia zen. 2000. urtean aldatu ginen baina ni aurretik banenbilen beste zerbaiten bila. Han alokairuan nengoen (Arrazola familiarena zen lokala), baina ikusten nuen sar nintekeela lokal berri batean, eta bila hasita nengoen. "Hemen lokal berria derrigorrezkoa da" esaten nion neure buruari. Eta iritsi zen momentu bat jabeek esan zidatela etxea botatzera zihoazela, eta orduan bai, orduan zirt edo zart egin beharra zegoen aldaketa.

Gogorrena izan zen pertsiara hura itxi behar izatea. Zenbat negar egin nuen! Denek esaten zidaten, "baina askoz leku hobera zoazeta", baina pertsiara hura betirako ixtean, nire bizitzako etapa bat ixten zen, nire lehen etapa, eta hori gogorra izan zen.

Pinoteazko altzari ederra mantendu egin nahi izan nuen, botika txikiaren sinboloa. Baina gainerakoak eguneratuta eta automatizaturik daude, eta arreta farmazeutikoa emateko intimitatea ondo definituta dago.

Zuk herriari zerbitzu gisa hartu duzu beti farmazia...

Bai. Zestoa bezalako herri bateko farmazia bateko lanak, ordutegi zabalak eta guardia iraunkorrak dituenak, farmazialariari ez ezik, bere familia osoari ere eragiten dio. Zer esanik ez langileei... Familia osoak farmazia eta herriari eskainitako zerbitzua zen.

Gizarteak ere eboluzionatu egin du (gaur egun, jende zahartuagoa dago). Gaixo kroniko eta edadetu batekin, batzuetan egunean behin baino gehiagotan botikara etortzen den gaixo kroniko batekin izaten diren harremanak, askotan gaixotasunetik harago joaten dira, eta herri txiki batean errazago sortzen da konfiantzazko harremana; batzuetan, hitz egitea besterik ez dute nahi. Akordatzen nahiz hainbat pertsonen, bakarrik zeuden, eta etortzen ziren

egun batean pastilla baten bila, hurrengo egunean beste pastilla baten bila, askotan hitz egitea bakarrik nahi zuten. Ezagutzen dituzun neurrian, badakizu zer gabezia dituzten; agian hori izango da egunean izango duten elkarrizketarik handiena.

Farmaziak asko lagun dezake eta lagundu behar du osasun-sistema arintzen, are gehiago Zestoa bezalako herrietan; izan ere, lehen mailako arreta 15:00etan amaitzen da, eta, aldiz, farmaziak merkataritza-ordutegia du, larunbatak barne. Gizarte lan garrantzitsua egin daiteke farmaziatik. Pazienteari medikazioa behar bezala hartzen laguntzea, bere osasun-arazoa hobeto ezagutzearen garrantziaz hitz egitea, batez ere edadeko paziente kronikoen kasuan. Paziente gazteengan, ordea, "gehiegizko informazioa" izan daiteke arriskua, eta hori arazo izan daiteke profesionalarentzat. Etortzen dira denak interneten irakurritako gauzeekin, eta kontuz ibili behar da horrekin.

Amaitzeko, zer esango zenuke?

Nik asko maite izan dut Zestoa, eta zerbitzurik falta ez dadin lan egin dut nire txokotik. Gozatu dut bertako festekin (dantzan egin dut *Amparito Rocarekin*) eta bihotzean daramat herria. Norbaitek esaten bazidan "zure herrian izan naiz", erantzuten nion "nire zein herri-tan?". Nire lan-etapa amaitu da, eta pozik eta eskertuta nago jasotako guztiarengatik. Eskerrak eman nahi dizkiet ibilbidean lagundu didaten lankide guztiei: Miren, Mirari, Loli, Xabier eta beste guztiei. Esku onetan uzten dut farmazia, herriaren eta bere pazienteen zerbitzura dauden profesionalen eskuetan.

Fernando arzallus



tadi Kaleokerreko botikan. 1966



Oraingo belaunaldia



Karmen, Xabier eta Mirari



BEREN EGUNA OSPATU DUTE LASAITARREK

Lasaotarren Eguna ospatu zuten atzo Lasaon, uda atarian ohiko bihurtu den festa egunean. Arratsaldetik goizaldera bitartean hainbat ekintzaz gozatzeko aukera izan zuten lasaitarrek (askotariko jolasak, gaztetxoaren pilota partidak, afaria, bingo musikatua eta mus txapelketa) eta festa giroa nagusi izan zen.



AGURTU DUTE IKASTURTEA ARROABEKO ETA HERRIGUNEKO HAURREK

Ekainaren 19an agurtu zuten ikasturtea Arroako Herri Eskolako haurrek. Arratsalde osoan giro ederra izan zen eskolan, eta puzgarriak, aurpegi margoketa, antzerkia eta mokadutxoak izan zituzten gozagai. Egun bat beranduago Herri Eskolako festa ospatu zuten Zestoako Herri Ikastetxean. Dantza erakustaldiarekin eman zioten hasiera arratsaldeari. Ondoren, hamar txoko ingurutan banatuta, adin guztietarako jolasak eta tailerrak egin zituzten. Horrez gain, herrialde ezberdinetako jakiak dastatzeko aukera ere izan zuten bertaratuek.



160 MENDIZALEK EGIN ZUTEN 24. IBILALDI NEURTUA

Agiri mendi klubak antolatuta, Zestoako 24. Ibilaldi Neurtua egin zuten ekainaren 13an herriko 160 mendizalek. Ohi bezala, bi ibilbide zituzten aukeran parte-hartzaileek: 18,7 kilometroko ibilbide motza, eta 26,33 kilometroko ibilbide luzea.

Mendiaz gozatzeko aukeraz gain, herriko mendi-bide desberdinak ezagutzera emateko helburua du Zestoako Ibilaldi Neurtuak, eta hala egin zuten aurtengo edizioaren ere. Ibilbide luzean, baina, azken orduko aldaketak egin behar izan zituzten antolatzaileek, goizean Goilurrak rally txapelketa igaro baitzen Aittola ingurutik. Hori horrela, 15. kilometroan Aittolatik Sesiarte mendira joan beharrean, Triku Sakonera joan ziren parte hartzaileak.



ZEHATZU DA NOLAKOA IZANGO DEN KULTUR ETXEKO BEHE SOLAIRUA

Kultur Etxeko eraldaketaren inguruan azken hilabeteetan landutako aurreproiektua aurkezteko eta hurrengo urratsak partekatzeko elkartu ziren Udaleko ordezkariak herritarrekin. Gaur egungo aretoa espazio diafano bihurtuko da, eta horretarako, eserlekuen gunea, oholtza eta oholtzaren atzealdea altuera bereko espazio bakar batean integratuko dira. Gaztetxearen kasuan, jakinaenez, goiko solairutik beheko solairura lekualdatuko dute, orain arte jubilatuen taberna izan den espaziora. Kamerinoak gaur egungo jubilatuen tabernako sukaldearen espazio guztia hartuko du.

Obrek lau hilabete inguru iraungo dutela aurreikusten da, eta Udalaren asmoa lanak 2027an hasi eta urte bereko erdialderako amaitzea da.



KASKAROTEK BETE ZUTEN LARANJADI PLAZA ITXAROPENAREN IKASTURTE AMAIERAKO JAIALDIAN

Itxaropena dantza taldeak ikasturte amaierako ohiko jaialdia eskaini zuen hilaren 7an, Laranjadi plazan. Aurtengo jaialdia Lapurdiko kaskaroten dantza, doinu eta kantuekin osatu zuten Itxaropenakoek.

Guztira, Itxaropena dantza taldeko 90 dantzari inguru aritu ziren plazan, 6 urtetik 60 urtera bitartekoak, belaunaldi ezberdinak batu baitzituen ikuskizun bereziak. Haiekin batera aritu ziren Garikoitz Mendizabal, Xabi Zabala, Jon Mendizabal, Gorka Regil, Beñat Etxabe eta Joseba Regil musikariak, denak ere beren erritmora.



TREN TXIKIEN TOPAKETA IRAETAN

Iraetako Trenak elkarteak antolatuta, hamargarrenez ospatu zuten hilaren 20an Tren Txikien Topaketa Iraetan. Urteko zita garrantzitsua izan zen lokomotora txikien zaleentzat eta parkeko materialez gain, Espainia osotik ekarritako hogeitren inguru ere egon ziren ikusgai. Horietatik lau ikatzarekin funtzionatzen duten lurren-makinak izan ziren, ikusmin berezia piztu zutenak bisitarien artean.



FANTASIAZKO ELEBERRIA KALERATU DU KEPA IRIBARREK

Hilaren 17an aurkeztu zuen Donostian bere hirugarren liburua Kepa Iribarrek. Getariarra jaiotzez baina Arroabeko bizilaguna den idazleak Odol ilargiaren alaba izeneko eleberria kaleratu du. Aurretik 72 ordu (2022) eta Erleen azken zitzada (2025) argitaratuta, oraingoan fantasiako eleberria idatzi du.

Iribarrek azaldu zuenez, alabaren eskakizun bat izan zen liburuaren abiapuntua. Fantasiako istorioen irakurle amorratua den alabari askotan esaten zion euskaraz irakurtzeko, baina erantzuten zion euskaraz ez zegoela genero horretako lan askorik, eta berak idatzi beharko zuela halako bat. Erronka horri helduta sortu du liburua, euskaratik eta euskaraz sortutako fantasiako kontakizuna. Erein argialetxeak ere hasieratik ilusio handiz hartu zuen proiektua, euskaraz sortutako fantasiako obren hutsunea betetzen lagun zezakeelakoan.



EUSKAL SELEKZIOARAKO DEIA JASO DU JON MENDIZABALEK MAHAI-TENISEAN DENBORALDI APARTA EGIN OSTEAN

Mahai-tenis jokoan, denboraldi aparta osatu du Jon Mendizabal zestoarrak. Gipuzkoako txapeldun izateaz gain, Fortuna taldearekin ligan bigarren postua lortu du, eta maila indibidualean ez du partidarik galdu. Emaizta horiei esker, datorren denboraldian Euskal Selektioarekin aritzeko deia jaso du 20 urteko mahai-tenislariak.

Nolatan hasi zinen kirol honetan? Etxetik etorritako zaletasuna izan zen ala kasualitatez probatu zenuen?

Bueno, ba, oso ondo akordatzen naiz nola hasi nintzen. Opor batzuetan izan zen, familiarekin geundela. Egia da etxean bazegoela pinponean jokatzeko zaletasuna, eta oporretan asko ibiltzen ginen jokatzeko. Niri asko gustatzen zitzaidan, eta garai hartan futboleko ibiltzen nintzen arren, urte hartan futbola uztea erabaki nuen eta beste kirol bat praktikatu nahi nuen. Pinponean asko ibiltzen nintzen, Gipuzkoan zein klub zeuden begiratzen hasi ginen, eta Donostiako Fortuna kluba aurkitu genuen. Aukera hori egin nuen, eta horrelaxe hasi zen dena.

[Irakurri elkarrizketa osorik danbolin.eus atarian]



auzoetan festak, eta herriatik herriarentzat

ZESTOA EZ DA OHIKO UDALERRIA. HERRIGUNEAZ GAIN, NORTASUN HANDIKO HAINBAT AUZO DITU: ARROABEA, ARROAGOIA, AIZARNA, IRAETA, NARRONDO, LASAO, IBAÑARRIETA ETA ENDOIA. BATZUK BIZTANLE GEHIAGO ETA JARDUN HANDIAGOA DUTEN GUNEAK DIRA; BESTE BATZUK, BERRIZ, SAKABANATUAGOAK ETA TXIKIAGOAK. BATZUK UDALERRIAREN ERDIGUNETIK GERTU DAUDE, ETA BESTE BATZUEK LOTURA ESTUA DUTE INGURUKO HERRIEKIN ERE.

Arroabea, Arroagoia, Aizarna eta Iraeta dira biztanle gehien biltzen dituzten auzoak. Narrondo, Lasao eta Endoia, aldiz, sakabanatuagoak dira, eta berezitasun gehigarri bat ere badute: egunerokoan beste udalerrri batzuekin ere harreman zuzena izaten dute. Narrondok Zumaiarekin du lotura estua; Lasao Azpeitiarekin; eta Endoia Itziarrekin. Hiru auzoetako zati bana, gainera, aipatu udalerrien parte da. Festen egutegiak ere aniztasun hori erakusten du. Gehienek udan ospatzen dituzte jaiak, baina badira salbuespen nabarmenak. Iraetan Santa Ines jaiak urtarrilaren 21aren bueltan ospatzen dituzte, negu betean; Lasaoan, berriz, San Martin jaiak azaroaren 11ren inguruan izaten dira. Endoian udaberrian ospatzen dituzte Asentzioak. Gainerako auzoetan, berriz, uda da festen garaia. Desberdintasun horien gainetik, ordea, bada auzo guztiek partekatzen duten ezaugarri bat: festak ez direla berez antolatzen. Jai egitarauen, herri afari eta kontzertuen atzean hilabeteetako lana dago, eta lan hori auzotarrek eurek egiten dute, borondatez. Auzoetako Festa Batzordeetako kideekin hitz egin dugu, auzoetako festen atzean dagoen errealitatea ezagutzeko. Paperaren mugak medio, artikuluhonek auzotarrek esandakoen hainbat zertzelada besterik ez ditu biltzen; datozen asteetan, danbolin.eus webgunean argitaratuko ditugu elkarrizketak osorik.

Festak, auzoa elkartzeko aitzakia

Festa bakoitzak bere nortasuna du. Aizarnan oilasko-biltzea eta herri-afaria dira ekitaldi arrakastatsuenak. Narrondon sardina jana eta San Kristobal eguna. Iraetan pintxo lehiaketa eta Urrezko Aizkora. Arroagoian herri-afaria, baita Endoian ere igandeko herri kirolekin batera. Arroabea paella-lehiaketa. Lasaoan bertso-afaria.

Ekitaldiak askotarikoak izan arren, guztiek azpimarratzen dute ideia bera: festak direla auzoa elkartzeko unerik garrantzitsuena. Gainera, ia festa batzorde guztiek aipatu dituzte jan-edanaren inguruko ekitaldiak auzotarrek gehien espero dituzten hitzordu gisa.

Lasao bezalako auzo batean urtean zehar bakoitza bere baserrian bizi da, baina festetan auzotar guztiak elkartzen dira. Arroagoian, berriz, herri afaria bihurtu da Arroerreka eta Arroagoia elkartzen dituen hitzordu nagusietako bat eta sarrerak berehala agortzen dira. Narrondon, inguruko herrietatik ere jende ugari gerturatzen da sardina jatera, nahiz eta haientzat San Kristobal eguneko hamaiketako den bereziena. Aizarnan hainbat belaunaldi elkartzen da herri afarian eta herri kiroletan.

Parte-hartzerik gabe ez dago festarik

Festa batzordeetako kide guztiek euren jaiak parte-hartzaileak direla uste dute.

Aizarnan argi dute: «Parte-hartzea nahitaezkoa da; bestela ez legoke festarik». Narrondon antzera pentsatzen dute, eta Lasaoen ere kontsumotik baino gehiago parte-hartzetik eraikitako jai eredia defendatzen dute.

Hor dago, hain zuzen ere, auzoetako festen berezitasunetako bat. Herrigunearan udal brigaderek eta teknikariek egiten dituzten lan asko auzotan herritarrek eurek egiten dituzte. Mahaiak jarri, karpak muntatu, txosna prestatu, afaria zerbitzatu edo ekitaldiak koordinatu. Jaiak auzolanearan egiten dira.

Horregatik, festa batzordeetako askok ez dute euren burua antolatzaile huts gisa ikusten. Herriaren parte dira, eta herriak egiten ditu festak.



Belaunaldi aldaketa: batzuentzat kezka, besteentzat itxaropena

Erreleboaren gaia da festa batzorde guztietan agortzen den kezketako bat.

Arroagoian aitortzen dute jende berria erakartzea zaila dela. Gazteak badaudela diote, baina ez direla erraz sartzen antolakuntza lanetan. Arroabeen ere antzeko egoera bizi dute. Urteak daramatzaten kideek lanean jarraitzen dute, baina jende berria erakartzea ez da beti erraza.

Beste auzo batzuetan, ordea, baikortasun handiagoz hitz egiten dute. Aizarnan urte batzuetan gazte kuadrilla sendo baten falta sumatu bazuten ere, gaur egun belaunaldi berria indartsu datorrela diote. Narrondon ere antolatzaileek argi adierazi dute:

«Betikoak hemen gaude, baina inguruan dugun gazte taldearen laguntzarik gabe ezinezkoa litzateke. Haiek behar gaituzte, baina guk beraiek gehiago».

Lasaon, berriz, belaunaldi aldaketa oraintxe gertatu da. Gurasoek urte luzez egindako lana hartu dute seme-alabek, eta gaur egun haiek dira festen antolakuntzaren gidaritzak hartu dutenak. Endoian ere berdina adierazi dute, urte luzez jende berdina ibili ondoren aurten gazte jendea elkartu da auzoa biziberritzeko asmoz. Iraetan,

berriz, auzoko bizilagun zaharren eta berrien arteko desberdintasunez aritu dira. Haien esanetan, auzo lotarako dutenek zailagoa izaten dute festen antolakuntzan inplikatzeko. Horren harira, gizartearen aldaketa eta auzolanaren gainbehera ere aipatu dituzte hainbat auzotan. Hala ere, denek onartzen dute erronka bera dutela: ez da nahikoa jendea festetara joatea edo ekitaldiaren unean bertan laguntzea (nahiz eta eskertzen den). Festak antolatzeko prozesuan ere parte hartzea beharrezkoa da. Izan ere, festa batzorde guztiek azpimarratu dute proposamen berriak ongi etorriak direla, baina horiek lanerako prestasunarekin batera datozenean dutela benetako balioa.



Lan ikusezina

Festak iristen direnean dena prest egoten da. Baina prestaketa lanak hilabete asko lehenago hasten dira.

Arroabeen azaroan hasten dira hurrengo urteko jaiak prestatzen. Aizarnan urtarrilean egiten dute lehen bilera. Narrondon urte amaieran hasten dira musikariak eta hornitzaileak lotzen. Iraetan azaro aldera hasten dira lanean. Eta hor dago askoren ustez lanik nekagarriena.

Auzo guztiek burokrazia aipatu dute gehien erretzen dituen elementu gisa. Fakturak, dirulaguntzak, eskaerak eta administrazio prozedurak gero eta konplexuagoak direla diote.

Aizarnan eta Lasaoen jendea mugitu behar izatea ere aipatu dute. Festa egunean laguntzeko prest dagoen jendea egoten da, baina aurreko lanean inplikatzeko gero eta zailagoa da. Arroabeen ere antzeko sententzia dute: askotan jendearen atzetik ibili behar izaten dute gauzak aurrera ateratzeko.

Lanak eta parte-hartzea ia mesede gisara eskatu beharra ere aipatu dute askok, jendea konpromisoan jarri beharra. Hori bereziki nekagarritzat jo dute.

Udalaren laguntza beharrezkoa da, baina...

Udalarekin harremana, oro har, ona dela diote auzo guztietan. Auzoko festetan gehiago egin beharko ote lukeen galdetuta ere, erantzunak ez dira bereziki zorrotzak izan. Auzotarrek azaldu dute urte luzez horrela antolatu dituztela festak, eta askotan ez dela faltan botatzen inoiz izan ez dena. Hala ere, ia auzo guztietan nabarmendu dute laguntza ekonomiko handiagoa eskertuko luketela. Izan ere, ekitaldiak antolatzea gero eta garestiagoa da, eta udalaren ekarpena ez da neurri berean hazi.



Dena den, auzo guztiek ez dute egoera bera. Arroabeen, adibidez, aurrekontuari buruzko kezka gutxiago azaldu dute. Zestoako auzorik handiena izanik, udalaren dirulaguntza handienetakoa jasotzen dute, baina ez da hori arrazoi bakarra. Festa batzordeak festa aurretik inguruko enpresetara jotzen du babes eta laguntza ekonomiko bila. Haien esanetan, lan horretan arreta berezia jartzen da.

Narrondon ere antzeko adibide bat aipatu dute. Azken urteetan ospe handia hartu duen sardina jatea auzotar baten enpresaren laguntzari esker antolatzen dute, eta horrek ekitaldiari eustea ahalbidetu du. Aizarnan, ordea, gau bateko musika emanaldi batek aurrekontuaren zati handiena irents dezakeela azaldu dute. Auzoetako batzordeetako hainbat kidek uste dute azken urteetan jaietako zenbait ekitaldik indarra galdu badute, neurri batean behintzat musika eta ikuskizunen kostuak garestitu direlako izan dela. Aurrekontuak mugatuak direnean, zailagoa da jendea erakartzeko gaitasun handia duten taldeak edo ikuskizunak kontratatzea, eta horrek festen erakargarritasunean ere eragina duela diote.

Bestalde, auzo guztietan aipatu dute administrazioaren eskakizunak handitu direla. Lehen modu informala goan egiten ziren hainbat gastu gaur egun fakturekin justifikatu behar dira, eta horrek ere kostuak garestitu dituela diote. Herriko musikari bati edo laguntzaile bati lehen baino zailagoa zaio ekarpena egitea, baldintza gehiago bete behar direlako.

Iraetan, gainera, egoera berezia bizi dute. Santa Ines jaiak urtarrilean ospatzen direnez, udalaren dirulaguntza festak igaro ondoren jasotzen dute. Horren ondorioz, festa batzorde-

ko kideek euren poltsikotik aurreratatu behar izaten dute dirua hainbat gasturi aurre egiteko.

Hala ere, bada datu deigarri bat: inork ez du eskatu udalak festen antolakuntza bere gain hartzea. Kontrakoa adierazi dute guztiek. Udalak lagundu dezakeela uste dute, baina jaiak herritik eta herritarrengandik sortu behar direla. Festa batzordek gabe, diotenez, festek ez ezik, auzoek eurek ere nortasunaren zati handi bat galduko lukete.



Harremana, oro har, ona dela adierazi badute ere, auzotarrek nabarmendu dute herrigunetik datorren presentzia urria dela, bai herritarren aldetik, bai udal ordezkarienetik. Sentsazio hori bereziki indartsua da beste udalerrri batzuekin mugakide diren auzoetan.

Azpiegiturek ere egiten dituzte festak

Auzoetako festak ez dira soilik aurrekontuaren araberakoak. Azpiegiturek eta espazioek ere eragin handia dute antolakuntzan eta jaietako giroan. Narrondon, adibidez, ez dute eremu estalirik. Horregatik, urtero karpa alokatu behar izaten dute, eta gastu horrek aurrekontuaren zati handi bat eramaten du.

Iraetan kontrako egoera dute. Estalitako gunea badute, baina ekitaldi guztiak toki berean egiten direnez, etengabe muntatu eta desmuntatu behar izaten dituzte mahaiak, oholtza edo bestelako egiturak. Lan handia eskatzen duen antolaketa da.

Aizarnan ere eguraldiak eragin zuzena du festetan. Euria egiten duenean jendea txosnaren estalpean babesten dela azaldu dute, eta horrek ekitaldi batzuen garapena baldintzatzen duela. Festa batzordeko kideen esanetan, askotan bi tanta nahikoa izaten dira plaza hustu eta jendea estalpera biltzeko. Horren ondorioz, dantzaldiak edo kalean egiteko pentsatutako ekitaldiak indarra galtzen dute, nahiz eta jendea festan bertan egon.

Espazioei buruz hitz egitean, auzo guztietan agertu da beste elementu bat, elkarte gastronomikoa. "Soziedadeak" herri bizitzaren eta festen antolakuntzaren erdigune dira kasu askotan. Elkarteetako zuzendaritza alde edo kontra izateak festen bilakaeran eragin zuzena duela ikusi da. Izan ere, elkarteen izaera publiko-pribatuarekiko pertzepzioa ere aldatu egin da, gizartearen isla.

Horren adibide positiboa da Lasao. Duela bederatzi urte eraikitako Aisialdirako Egoitza dute bertan, eta eraikin horrek auzoaren bizitza soziala erabat aldatu duela diote. Elkarte gastronomikoa izateaz gain, auzo elkartearen bilgunea ere bada, eta biak primeran uztartzen direla adierazi dute. Festa batzordeko kideek azaldu dute espazio horri esker belaunaldi berriak elkartzeko aukera izan dutela, eta neurri batean horrek ekarri duela azken urteetako berpizkundea.

Herria bizirik mantentzeko modu bat

Festa batzordeetako kideei zerk bultzatzen dituen galdetuta, erantzunak desberdinak dira, baina funtsa bera.

Batzuek ilusioa aipatzen dute. Beste batzuek, ardura. Askok "norbaitek egin behar duelako" esaten dute. Baina erantzun guztien atzean ideia bera dago: auzotar sentitzea eta herria bizirik mantentzea.

Izan ere, auzoetako festak ez dira soilik lau eguneko ospakizunak. Urte osoan zehar auzotarrak lotzen dituen haria dira. Belaunaldiak elkartzen dituzte, harremanak sendotzen dituzte eta auzo bakoitzari nortasuna ematen diote. Eta horregatik, festa batzordeetako kideek antzeko mezuak helarazi nahi izan dizkiete auzotarrei: festak guztionak dira. Kritikak egiteko eskubidea dago, noski, baina parte hartzeko aukera ere beti dago zabalik. Izan ere, auzo guztietan errepikatu da: festak herritik eta herriarentzat antolatzen jarraitu behar direla.

ZESTOAN

uste baino gehiago

Janaridendak

 **ELORZA**
janaridenda
943 147 660

ARRAINDEGIA
KONTXI
ZESTOA 943 148 247
AZPEITIA 943 811 946

 **miantxa**
denda
Tlf 943 147 015

 **Pakei Olorua**
943 148 428

 **EROSKI** city
zurekin
943 062 861

 **UZKUDUN**
harategia
Erdikalea, 5
Tel. 943 147 023
ZESTOA

Teknologia, liburu, paper denda

943 147 110

 **mairi**
LUTERIA
ESTANKOA

 **LOTXOLO**
Tel. 943 147 133

 **Izarraltz**
Kudeaketa informatikoa

Etixerako osagarriak

 **ONK**

943 147 081-647 683 643

Arropa eta oinetakoak

 **IRAOLA**
ZAPATEGIA
617 269 408

Edertasuna eta ongizatea



beatriz izeta
943 148 322

 **KERALA**
ongizate txokoa
679 885 173

 **ZESTOA**
ZURETZAT

Euskadi, auzolana, bien común
 **EUSKO JAURLARITZA**
GOBIERNO VASCO
TURISMO, MERKATARITZA
ETA KONTSUMU SAILA
DEPARTAMENTO DE TURISMO,
COMERCIO Y CONSUMO

 **ZESTOAKO UDALA**



ZESTOAKO ARTE ESZENIKOEN ESKOLA

Asetu zure artista grina

2026/27 IKASTURTERAKO IZEN-EMATEA ZABALIK

 eromenprodukzioak@gmail.com  658 739 032   @eromenprodukzioak

euskarari eusteko beti dago tokia
sartu maletan



abuztuaren 7ra arte liburutegia zabalik

ORRISTIA



Donald Trump, Amerikako Estatu Batuetako presidentea, botako nuke sutara. Gehiago ere badaude, baina bera izango litzateke lehena.

Jose Luis Aristi
75 urte

Bizi izan ditudan gauza txarrak erreko nituzke. Bestetik, gure herria nahiko abandonatuta eta gutxi zainduta daukagula iruditzen zait; horregatik, egoera hori aldatzeko desira ere sutara botako nuke.

Loren Nogales
65 urte



Ikasturtea amaitu berri dugunez, unibertsitateko apunte guztiak erreko nituzke, irailera arte ikasketez ahazteko.

Izar Alberdi
19 urte




Munduko politikari guztiak erreko nituzke. Horrez gain, nire desirak paper batean idatzi eta sutara botako nituzke, bete daitezten.

Petra Pozo
71 urte

zer erreko zenuke san Joan sutan?

- iraganeko gauza txarrak
- ditudan kezkak
- etorkizunerako desira bat
- ezer ez nuke erreko



Erantzuleak guztira: 101



Bidegorria egin dute, baina Agote auzotik bertara iristeko ez dute sarbide egokirik jarri.



Garbitu ondoren, beste itxura bat hartu dute Iraetako espaloiek.



FEREKI

BERRIKUNTZAK

ELEKTRIZITATEA · ITURGINTZA
GREMIOEN KOORDINAZIOA
AEROTERMIA · GASA
BEROKUNTZA

Jagoba Otaegi Isidro Fernandez
695 721 015 690 108 996

EKAINA

27 LARUNBATA
EHko Banakako Kluben
Arteko Txapelketako finalak,
11:00etan, Kiroldegiko frontoian.

UZTAILA

02 OSTEGUNA
Zestoako Mugimendu
Feministak antolatuta,
"Ultramarino" laburmetraiaren
emanaldia, 18:30ean, Alonderon.

03 OSTIRALA
Txokoko Txapelketako
finala. * D' capricho taldearen
kontzertua, 19:30ean, Portalen.

11 LARUNBATA
Portalek antolatuta,
argazkilaritza saioa, 9:30etatik
13:30era. * Iraetako tren txikia
zabalik.

17 OSTIRALA
Garxot & Garaziren
kontzertua, 19:30ean, Portalen.

17 -18 ASTEBURUA
Agiro mendí klubak
antolatuta, Larra-Belaguara
asteburu pasa.

22 ASTEAZKENA
Odol ateraketak
Alonderon.

23 OSTEGUNA
Zestoa Osasuntsuren
ibilbide motza eta hamaiketako.

24 OSTIRALA
Bidelapurak taldearen
kontzertua, 20:00etan, Portalen.

25 LARUNBATA
Iraetako tren txikia
zabalik.

AUZOAK FESTETAN

SANKRISTOBALAK NARRONDON

10 OSTIRALA
Kristobal Deunaren eguna. 8:00 Txupinazoa. 11:00
Herri Meza eta ondoren, hamaiketako. 16:00-20:00
Puzgarriak (eguraldi ona egiten badu uretako puzgarriak
izango dira), zezen mekanikoa eta txokolatada. 19:30
Inguruko baserrietako sagardo dastaketa pintxoekin eta
Ostolaza eta Larrañaga trikitilariak. Ondoren, dantzaldia.

11 LARUNBATA
12:00 Bidegorriko I. Poteoa Bizikletarekin. 15:30
Mus eta Eskoba txapelketa. 20:30 Sardina jana (sardinak
doan, saiheskiak eta edariak ordainduta). Ondoren,
Elizagoien ahizpak eta Imanol trikitilariak.

12 IGANDEA
11:00-14:30 IV. Artisau azoka eta talogileak
(hauek egun guztian zehar egongo dira). 12:30 Zapotxin
pailazoaren "Baratxuri zoparen sekretua" emanaldia.
Ondoren, bazkaltzeko aukera izango da karpan, bakoitzak
bere janaria eramanda. Edariak mostradorean erosi
beharko dira. 18:00 Herri kirol erakustaldia. Aizkolariak:
Andoni Iruretagoiena "Izeta VI", Mikel Larrañaga, Ugaitz
Mugerza eta Eneko Otaño. Harri-jasotzaileak: Estefi
Etxebeste eta Udane Ostolaza.

KARMENAK ARROBEAN

15 ASTEAZKENA
Karmen bezpera. 18:00 Karroza. Herrira iristean,
txupinazoa eta bandera igoera. Gero, DJ Patx.

16 OSTEGUNA
Karmen Eguna. 11:00 Futbito txapelketa. 12:00
Meza. 13:00 Itxaropena dantza taldearen emanaldia. 14:00
Jubilatuaren bazkaria eta bazkalostean, trikitilariak. 18:00
Herri kirolak. 19:30 Etxera pilota txapelketako finala. 22:00
Karmenetako mus txapelketa.

17 OSTIRALA
Umeen Eguna. 11:00 Ume jolasak. 13:00 Umeen
bazkaria. 15:00 Puzgarriak. 19:00 Gozau txaranga. 21:00
Herri afaria. 23:00 Hoben, The Lio eta DJ Indate.

18 LARUNBATA
Kuadrilen Eguna. 14:00 Kuadrila bazkaria. 17:00
Kuadrilen arteko jolasak Lopeneko zezen txikiekin.
Ondoren, Lopene Ganadutegiko enbolatuak. 19:00 Hamarru
Elektrotxaranga. 23:00 Trikidantz eta DJ Bull txosnan. DJ
Saizar, Kroke eta Eddy zentroan.

19 IGANDEA
12:00 Umeentzat ekintzak eta meza. 13:00
Zestoako bandaren kontzertua. 18:00 Sagardo dastaketa.
19:00 Izer eta Alabier. 22:00 Bandera jeitsiera eta festen
amaiera.

SANTIO-SANTANAK ARROGOIAN

24 OSTIRALA
Santio bezpera. 20:00
Txupinazoa. Jarraian, trikipoteoa.
21:00 Herri afaria trikitilariak
alaiturik. 23:30 Obaneuke
taldearen erromeria. 1:30 Dantza
bikote lehiaketa. 3:00 DJ Patx.

25 LARUNBATA
Santio eguna. 12:00
Patata tortila eta sagardo
lehiaketa. Jarraian, eskupilota
partidak. 18:30 Herri kirolak, Izer
eta Alabier trikitilariak alaituta.
Aizkolariak: Hodei Ezpeleta
"Bihurri" eta Joxean Etxeberria.
Harri-jasotzaileak: Udane
Ostolaza eta Goenatxo III. 23:00
Ahantzi taldearen erromeria.

26 IGANDEA
Santa Ana eguna. 11:00
Meza nagusia. Ondoren,
jubilatuentzat hamaiketako eta
bingo "Akulu" bertsolariak
alaiturik. 17:00 Apar festa. 19:00
Herritarren arteko kirolak. 22:30
Argazki proiektzioa. 23:00 Laja eta
Letxurdio trikitilarien dantzaldia.

27 ASTELEHENA
11:00 Tolareko igoera.
12:00 Zirku tailerra. 14:00 Ume
bazkaria. 16:30 Ume jolasak.
Jarraian, txokolatada. Bitartean,
Lanberri eta Garixe trikitilariak.
(Tartean otarraren zozketa eta
argazki lehiaketako irabazlea).

Taxi Zestoa



9 Eserleku
Eneko 603 394 729 Joseba 670 431 906

Surya Paz Marticorena



Osteopatia - Kirol masajea

605 765 140 Portalekalea 1, BeheB • 20740 ZESTOA (Gipuzkoa)



ZESTOAKO SAN JUAN FUNDAZIOA
943 147 019
sjzuzendaritza@gmail.com



Etxea kolorez, bizitza pozez

